

Sagarzale eta sagardogileak

Sagarzale eta sagardogileen arteko ihazko prezio-negoziaketak bien arteko konpromisoak sortu-erazi zituzten. Batetik, urteko prezioak erabaki ziren eta, bestetik, zetorren urtean egin beharrekoak aitatu ziren. Inportanteena sektorearen egoera neurtu eta etorkizuna argitzeko bideak jartzea.

Oraingoz, pauso batzuk eman dira. Lehenengo bilera sagardogile eta Diputazioko arduradunen artean egin zen. Hortan ez zuen parte hartu EHNE-k. Bileran horretan Diputazioak eskatutakoari jarraituz, hurrengorako EHNERi deitu zitzaion eta bigarren bilera hori, Diputazioak Hondarribin sagar eta sagardo probak egiteko daukan finkan egin zen apirilaren 20an. Bileran elkartu ziren: Nekazal diputatua den Jaime Zubia, eta Euskal Gobernuaren Nekazal Saileko Iñaki Arrien beren laguntzaileekin; sagardogileen partetik, bi taldetako ordezkariak eta baserritarren partetik EHNE (Alberto Aldasoro eta Andoni Lekuona).

Lehenengo bilera zenez, gaien zerrenda bat izendatu zen beste bileretan gauzak aztertu eta erabakiak hartzeko asmoz. Bi puntu nagusi hauek aipatu ziren: profesio arteko erakundea (erderaz "interprofesional" izenarekin ezagutzen dena) eta sagarzaileen elkarteak.

-Profesio-artekoa: era honetako erakundeek European urte asko daramazkete. Gauzak aztertu eta bideratzeko Frantziako "profesio-artekoaren" reglamendu zabaldu zen lektura azkar bat

emanen. Jakina, berehala erantzuna ematerik ez zegoen eta beste bilera baterako utzi zen, bien bitartean talde txiki batek dokumentu hori aztertu eta hemengo egoerara egokitzea eskatu zitzaion.

"Profesio-artekoa" EHNEk ezagutzen duen joera da. Formula horren atzetik gabiltza esne-sektorean ere eta badirudi laister gauzatuko dela. Sagardo-sailean ere sistema berdintsua izango litzateke: alde batetik sagar-produktoreak eta sagardogileak bestetik, bi alderdiak pisu berdina hartuz. Talde bakoitzaren osaketa eta jokatzeko forma talde bakoitzaren barruan antolatuz.

-Sagarzaileen elkarteak: alde batetik, frutadunak elkarte bat sortzen ari dira eta Diputazioaren aldetik sagarzaileen ere hor sartzea nahi luke. Nahi bakarrik ez, diru-laguntzak jaso nahi dituenak sartu beharrean aurkituko da.

EHNE beti elkartzearen alde egon da eta elkarteak sortzen ere lagundu du era askotara. Baina EHNEk, beste sektoreetan bezala, (behi-esnearena, ardi-esnearena eta abar) errebindikazio eginkizuna eta interes jeneralak defenditu beharra dauka eta sagar batzordearekin, hainbeste urtetan eta urte zailetan lan egin duenarekin, jarraituko du "profesio-arteko" berri honetan ere parte hartuz, bai sorrerakoan, eta bai gero ere.

Puntu guzti hauek aztertzeko bilera batzuk eratuko dira eta sagardo-sagarra daukaten guztiei dei egingo diegu, denen iritzia jaso dezagun eta behar den tokian presenta dezagun.